

Gernikak.

Begiradak. "MIRADAS"

Xanti Arrieta

BERGARA 2025. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Otsailaren 7tik 23ra • Del 7 al 23 de febrero



ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

Xanti Arrieta Martinez

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR

Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

INPRIMAKETA IMPRESIÓN

K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN

Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL

LG D 00130-2025

XANTI ARRIETA MARTINEZ

Testuen koordinatzailea / **Coordinador de textos**

Txema Ramirez de la Piscina Martinez

Kolaboratzaileak / **Colaboradores**

Nerea Ibarzabal Salegi

Eñaut Elorrieta Larruzea

Castillo Suarez Garcia

Patxi Ibarzabal Ansola

Maite Aristegi Larrañaga

Amets Arzallus Antia

Onintza Enbeita Maguregi

Martxelo Otamendi Egiguren

Kirmen Uribe Urbieto

Txema Ramirez de la Piscina Martinez

GERNIKAK. BEGIRADAK.

Xanti Arrieta

Txema Ramirez de la Piscina

Aurrean duzuna ez da atsedeen gunea. Ezta begiratoki ederra ere. Burdinazko aulki txatar batean zaude jesarrita. Deseroso, ipurdia jarlekuaren pleguetara egokitu ezinik. Parean duzun errealitatea ez duzu gustuko. Entzuten duzun garrasi gordinak bihotza urratzen dizu, baina ez dakizu zer egin, zer esan, nola jardun. Orrialdea pasa? Telebista itzali? Munduari bizkarra eman?

“Gernikak. Begiradak” erakusketa ezinegonetik sortu den begirada kolektiboa da. Gernikan 1937an izandako bonbardaketatik gaur arte zein gutxi ikasi dugun ikusarazten digun oihu erdiragarria. Izan ere, guk ezagutzen dugun Gernika horren atzean, beste hamarnaka, ehunka Gernika daude. Gehienak askoz ere bortitzagoak, askoz ere odoltsuagoak. Laztura. Izua. Heriotza. Basakeriaren oihartzun bipila helarazten dizkiguten toki-izenak dira: Malaga-Almeria, Tokio, Hiroshima, Dresde, Varsovia, Gaza... Guretzat, akaso, ezezagunagoak. Urrutikoegiak, agian? Zenbat Gernika, zenbat Hiroshima, zenbat Gaza berri jasateko prest gaude, gu —XXI. mendeko lehen laurdenera iritsi garen *munduko hiritar* modernook— gure besaulkitik zirkinik ere egin gabe?

“Gernikak. Begiradak” erakusketak Picassoren obra unibertsala zatikatu, berrinterpretatu eta oraingo testuinguruan kokatu du, orduko lekukotasunak berreskuratuz eta egun euskal kulturaren erreferentzialak diren zenbait pertsonaren begiradak jasoz.

Xanti Arrietak teknika eta material desberdinak—eskultura, pintura, argazkigintza, zeramika, esmaltea, zura...— erabiltzen dituen artista bergararra da.

Txema Ramirez de la Piscina ibilbide luzea duen kazetari, idazle eta ikerlaria da; aspaldi gasteiztatu zen komunikazio irakasle ibartarra.

GERNIKAK. BEGIRADAK.

Xanti Arrieta

Txema Ramirez de la Piscina

No estás en un área de descanso. Tampoco es un mirador. Estás sentado en una silla de hierro destartalada, intentando acomodar tu culo a los pliegues del asiento. Es incómodo, entre otras razones porque la realidad que tiene delante te incomoda. El grito que mece tus oídos te desgarrar el corazón. No sabes cómo actuar, qué hacer, cómo reaccionar. ¿Pasar página, apagar la televisión, dar la espalda?

La exposición “Gernikak. Begiradak” aporta una mirada colectiva surgida de la desazón. Del horror. Del pánico. De la muerte. Martillea nuestros oídos el eco de barbaries cometidas en lugares como la carretera de Málaga a Almería, Tokio, Hiroshima, Dresde, Varsovia, Gaza... Demasiado lejanos, tal vez. ¿Quizás desconocidos? Llegados ya al primer cuarto de este siglo XXI, ¿cuántos Gernikas, cuántos Gazas, cuántos Hiroshimas más pueden soportar nuestras modernas conciencias de ciudadanos del mundo?

La exposición “Gernikak. Begiradak” fragmenta literalmente la universal obra de Picasso. La reinterpreta y contextualiza recuperando algunos testimonios de los supervivientes de aquella masacre y los enriquece con las miradas de importantes referentes de la actual cultura vasca.

Xanti Arrieta es un artista bergarés que combina y fusiona diferentes técnicas y materiales: escultura, pintura, fotografía, cerámica, esmalte y madera entre otros.

Txema Ramirez de la Piscina es periodista, escritor e investigador de amplia trayectoria. Profesor de comunicación nacido en Ibarra y afincado en Gasteiz desde hace muchos años.

Laburpen biografikoa

XANTI ARRIETA (1959) artista bergararra da, eta hainbat teknika eta material uztartzen ditu: eskultura, pintura, zeramika, argazkigintza eta zura, besteak beste.

- 1975** Pinturaren arloan hasi zen, bertako artista taldearen eskutik.
- 1987** Zeramikako lehen ikasketak Eibarko Zeramika Eskolan egin zituen.
- 1988** La Bisbal d'Empordako (Girona) Zeramika Eskolara joan zen trebatzera.
- 1989** Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka bat jaso zuen, La Bisbal d 'Empordako Eskolan (Girona) ikasten jarraitu ahal izateko.
- 1990** Madrilera joan zen, esmalteei eta egosketa-teknikei buruzko ikastaro bat egitera.
- 1990** Tailer bat jarri zuen Bergaran, eta formatu handiko eskulturak egiten hasi zen han.
- 1992** "Zeramika arkitekturan" gaiari buruzko ikastaro bat egin zuen, Arcadio Blasco eskultorearekin (Alacant).
- 1993** Diseinuari eta eskulturari buruzko ikastaro bat egin zuen Faenzan (Italia), Emidio Galassi eskultura-irakaslearekin.
- 1996** Lustre metalikoen inguruko ikerketa ikastaro bat egin zuen Faenzan (Italia), Marco Tadolini irakaslearekin.

- Bakarkako eta taldeko hainbat pintura-, eskultura- eta zeramika-erakusketa egin du.
- Hogei urtetan, Amalur-Art egitasmoaren eskutik, Euskal Herriko hainbat artisautza azokatan parte hartu du.
- Azken urteetan, eskultura eta zeramika eskolak eman ditu Bergaran.
- Bergarako Udalak urtean zehar antolatzen dituen kultur zein kirol lehiaketetako irabazleei oparitzen dizkien garaikurren diseinatzaile eta egilea da.

Resumen biográfico

XANTI ARRIETA (1959) es un artista bergarés que combina y fusiona diferentes técnicas y materiales: escultura, pintura, cerámica, fotografía y madera entre otros.

- 1975** Se inicia en el campo de la pintura, de la mano del grupo de artistas locales.
 - 1987** Primeros estudios de cerámica en la Escuela de Cerámica de Eibar.
 - 1988** Se traslada a la Escuela de Cerámica de La Bisbal d'Emporda (Girona).
 - 1989** Recibe una beca de la Diputación de Gipuzkoa para proseguir sus estudios en la Escuela de La Bisbal d'Emporda (Girona).
 - 1990** Se traslada a Madrid, donde realiza un curso de esmaltes y técnicas de cocción.
 - 1990** Instala un taller en Bergara, donde realiza esculturas de gran formato.
 - 1992** Realiza un curso de cerámica en la arquitectura con el escultor Arcadio Blasco (Alicante).
 - 1993** Realiza un curso de diseño y escultura con Emidio Galassi, profesor de escultura en Faenza (Italia).
 - 1996** Realiza un curso investigación en lustres metálicos con Marco Tadolini, profesor en Faenza (Italia).
-
- Ha realizado diversas exposiciones individuales y colectivas, de pintura, escultura y cerámica.
 - Con el proyecto personal Amalur-Art, ha participado durante 20 años en las principales ferias de artesanía de Euskal Herria.
 - En los últimos años se ha dedicado a la docencia, impartiendo clases de escultura y cerámica en Bergara.
 - Autor del diseño y la realización de los trofeos con los que habitualmente obsequia el Ayuntamiento de Bergara a los y las ganadores/as de los diferentes certámenes culturales y deportivos que organiza a lo largo del año.

Nahiz eta irudiek
listua garraztu
misilek beti bide
berbera marraztu
mila bider ikusi
mila bider ahaztu
albistegiak ezin
omen du zehaztu
zenbat hil diren eta
zenbat aberastu.

Aunque las imágenes
se nos atraganten
los misiles siempre
dibujan la misma trayectoria
mil veces vista

mil veces olvidada
al parecer, el informativo
no puede certificar
ni cuantos han fallecido
ni cuantos se han enriquecido.

Nerea Ibarzabal Salegi

Idazlea, kazetaria, Bizkaiko bertsolari txapelduna (2023).

Escritora, periodista y campeona de bertsolaris por Bizkaia (2023).

Begiradak / Miradas



Akrilikoa, oihala burdin-hariaren gainean
90 x 90 x 9

Begiradak

Begiradaz mintzo ginen. Buru makur zegoen. Garaitua zirudien.

Izua nabaritu nion begietan.

Ikara, ezpainetan.

Laztura, bihotzean.

Gorrotoa, gogoan.

Baina, soa antzaldatzen hasi zitzaion.

Begi-ninietan irriaren marra ikusi nion. Samur-samur, hauxe bota zidan:

“Mintzo gaitezen egiaz. Eska dezagun justizia. Irten gaitezen kalera”.

Hablábamos sobre la mirada. Estaba cabizbaja. Parecía abatida.

Observé pánico en sus ojos.

Temblor en sus labios.

Pavor en su corazón.

Odio en su alma.

Pero, su semblante empezó a cambiar.

Sus pupilas esbozaron una sonrisa. Tiernamente me susurró:


“Hablemos sobre la verdad. Pidamos justicia. Salgamos a la calle”.

Txema Ramirez de la Piscina Martinez

Kazetaria, idazlea, Berriako kolaboratzailea, ikertzailea eta komunikazio irakasle ohia UPV/EHU.

Periodista, escritor, colaborador de Berria, investigador y ex profesor de comunicación en la UPV/EHU.

Emakumea kriseiluarekin / La mujer del quinqué



Zeramika, argazkia, akrilikoa oholaren gainean
 90 x 90

Nor izaten ikastea

Zaila da nor izaten ikastea.

Nor izaten bizitzea.

Borroka zahar eta berriak gurutzatzen zaizkigu maiz, eta,

ihes egin nahiko genukeen arren,

bertara lotzen gaitu zerbaitek.

Gure alde lanean ari den jendeak akaso.

Batzuetan ez dakigu non gauden baina bai nora joan nahi dugun,

eta noren ondoan.

Etorkizunaren aurrerakin gisa gogoratzen dugu iragana.

Maite ditugunen alde aritzea da oraina.

Aprender a ser quién



Es difícil aprender a ser quién. Vivir siendo quién. Frecuentemente se nos cruzan viejas y nuevas luchas y, aunque nos gustaría huir, algo nos une a ellas. Quizá la gente que trabaja por nosotras. A veces no sabemos dónde estamos, pero sí a dónde queremos ir, y al lado de quién. Recordamos el pasado como anticipo del futuro. El presente es apostar por los y las que amamos.

Castillo Suarez Garcia

Idazlea, euskaltzain osoa, euskara teknikaria toki-administrazioan eta filologoa.

Escritora académica de número de Euskaltzaindia, técnica de euskara en la administración local y filóloga.

Gerlaria / El guerrero



Zeramika, argazkia, akrilikoa oholaren gainean
 90 x 110

Eseriko nintzateke errementariren etxaurrean Alejarekin,
eta galdetuko nioke zer oroitzapen duen une hartaz.
Edo elkartuko nintzateke Inmarekin, San Juan Ibarra plazan,
zeruari so zer ikusten duen egun konta diezadan,
eta badakit hark ere lagunduko liokeela Tel al-Hawako neskato umezurtzari, Alejak Edurneri bezala.
Orduan, eseriko ginatkeke hirurok elkarrekin eta osatuko genuke Gernika haien memoria,
eta jarraituko genuke bertan, berbetan,
herrien memoria oso bat badela esanez, eta herrien nortasuna berretsiz;
izan ere, nekez uzten du sorterrria, sustraiak han dituenak.


Me sentaría delante de la casa del herrero, junto a Aleja, y le preguntaría por sus recuerdos de aquel momento.
O me encontraría con Inma en la plaza San Juan Ibarra, para que me cuente que ve hoy cuando mira al cielo,
y sabría que ella también le ayudaría a la niña huérfana de Tel al-Hawa, al igual que Aleja lo hizo con Edurne.
Entonces, nos sentaríamos juntas las tres y completaríamos la memoria de aquellos Gernikas,
y permaneceríamos allí, conversando, hablando sobre la memoria de los pueblos, constatando la identidad
de los pueblos, y es que, difícilmente abandona su origen quien mantiene allí sus raíces.

Patxi Ibarzabal Ansola

Hezitzailea, Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteko kidea.

Educador y miembro de la asociación Ahaztuen Oroimena 1936.

Emakumea ume hilarekin / La mujer con el niño muerto



Zeramika, argazkia, akrilikoa oholaren gainean
75 x 115

María Olabarria Lekukoa bonbardaketatik bizirik atera zena.

Nire alaba zaharrena, hogeita zazpi urtekoa, zapalduta hil zen. Besteak, gazteenak, ezkondu behar zuenak, eskua hartu, pixka bat estutu eta “Ai!” oihukatzeak astia izan zuen. Hasperen egin zuen, eta, begiak nigan josita, hil egin zen. Ez dakit zenbat denbora eman nuen han nire bi alaba hilen artean. Odola zeridan lepotik. Handik pixka batera, jaso egin ninduten.

“Mi hija mayor, que tenía veintisiete años, murió aplastada. La otra, la más joven, que se iba a casar, tuvo tiempo de cogerme la mano, apretarla un poco y exclamar: ‘¡Ay!’”. Dio un suspiro, y con los ojos clavados en mí, murió. No sé cuánto tiempo estuve allí entre mis dos hijas muertas. La sangre me corría por el cuello. Al cabo de un rato, me recogieron”.

Alberto Onaindia Apaiza, lekukoa bonbardaketatik bizirik atera zena.

Gerra totalitarioaren entseguak izan zen hura. Gernikara bidalitako hegazkin alemaniarrek burutu zuten. Borroka mota horren lehen adibidea...: lehenik, herritarrek izutzeak bonbak bota (jendea kaleak husten hasi zen, gotorleku, soto eta estalpetan ezkutatu); gero, lehergailuz betetako bonba-sortak jaurti eta, amaitzeko, hegazkin arinak erabili, bizia salbatu nahian —ihesean— zihoazen zorigaitzoak metrailatzeko.

“Fue el ensayo de la guerra totalitaria. Lo perpetraron los aviones alemanes enviados a Gernika. El primer ejemplo de este tipo de lucha... Primero, arrojaban bombas para aterrorizar a la población (la gente empezó a vaciar las calles, escondiéndose bajos, sótanos y cobertizos), luego lanzaron haces de bombas llenas de explosivos y, para terminar, emplearon aviones ligeros para ametrallar a los desgraciados que intentaban huir”.

Castor Uriarte Gernikako arkitektoa, lekukoa bonbardaketatik bizirik atera zena.

Arratsaldeko lau t’erdiak aldera, [...] San Juan kaleko kontratisten bulegoan [...], han geundenok hegazkin bat ikusi genuen herriari biraka; hegazkin hark herriko hiru bat lekutan hiruzpalau bonba bota ondoren Zornotzarako bidea hartu zuen. Azoka-eguna zenez jende asko etorri zen Gernikara. Eta jende hura, bonbak ikustean, ikaratu egin zen eta babeslekuetara jo zuen edo inguruko baso eta baserrietan ezkutatzen.


Hacia las cuatro y media de la tarde [...] en la oficina de contratistas de la calle San Juan [...] Todos los que estábamos allí vimos un avión dando vueltas en torno al pueblo; aquel avión tras lanzar tres o cuatro bombas en tres puntos del pueblo, se dirigió hacia Amorebieta. Como era día de mercado vino mucha gente a Gernika. Y la gente, al ver las bombas se aterrorizó y fue hacia los refugios o a cobijarse en el bosque o los caseríos de la zona”.

Sebastián Uribe Lekukoa bonbardaketatik bizirik atera zena.

Barrura [babeslekura] sartu bezain laster, hanka sartu nuela konturatu nintzen. Herritarrez gainezka zegoen. Jende guztia zutik zegoen, sardinak latan bezala. Handik irten nahi nuen. Bonba-jaurtitzaileak edozein unetan iritsiko ziren eta ez nuen harrapatuta geratu nahi. (...) Orduan sekulako eztanda izan zen.

“Tan pronto como estuve dentro supe que había cometido un error. Estaba abarrotado de gente. Estaban de pie, como sardinas en lata. Quería salir de allí. Los bombarderos llegarían en cualquier momento y no quería quedar atrapado. (...) Entonces hubo una tremenda explosión.

Zaldia / El caballo



Zeramika, akrilikoa oholaren gainean

100 x 100

Intxorta azpiko baserritxoan
amama Alejandra, kuxkurtuta, sutondoan.
Esku ximurtuetan argazki xahar bat;
otoitz ixil bat ahoan.
Horitutako bi irudiei, laztan bana, ta gorde berriz kolkoan:
Joxe, faxistek behartuta frentera;
Felipe, gudari, Herriaren aldeko bandoan.
Bi anai, parez pare, gerrate zoroa, odol jarioa.
Eta harrezkero zenbat alditan, zergatik, non daude, noiz arte?
Zenbat erantzun gabeko malko zure altzoan...

En el pequeño caserío a las faldas de Intxorta, está la amama Alejandra, acurrucada junto al fuego. En sus manos arrugadas, una foto ajada; en su boca una oración. Tras acariciar las dos imágenes decoloradas, las vuelve a guardar en su pecho: Joxe, obligado por los fascistas a combatir en el frente; Felipe, gudari, en el bando del Pueblo.

Dos hermanos enfrentados, guerra absurda, sangre derramada.

Desde entonces, cuántas veces, ¿por qué?, ¿dónde están?, ¿hasta cuándo?


¡Cuántas lágrimas sin respuesta en tu regazo!

Maite Aristegi Larrañaga

Nekazaria, EHNE sindikatuko idazkari nagusi ohia eta politikari ohia.

Agricultora, ex secretaria general del sindicato agrario EHNE y ex política.

Emakumea sutan / Mujer en llamas



Zeramika, argazkia, akrilikoa oholaren gainean
75 x 115



GRANOLLERS 1938

Bizigai

Munduak armak ekoizten ditu, Euskal Herriakere bai,
hor ez dago ez zoru eliko, ez damu eske, ez epai,
merkatuaren logikak dauka ingurua odolez blai,
beharrezkoak dira Gernika, Gaza, Mariupol ta Tigray,
hildako asko izan daitezen gutxi belzuen bizigai.

Amets Arzallus Antia, bertsolaria.

Airea: Iurrarenpean sar nindaileke.

Hogeita hamar tona bonba Gernikaren gainean. Azufrea iraken.

Ume hilak Yemen eta Palestinan.

Bonba atomikoak Hiroshima eta Nagashakin.

Gudu zelaia Sirian. Erresistentzia Kurdistanen.

Su-eten hautsia Mendebaldeko Saharan.

*Baina munduak ez du alboetara begiratzen, diru gehiago egin nahi du,
eta horretarako armak saltzen jarraitzen du.*

Onintza Enbeita Maguregi, bertsolaria.



VARSOVIA 1939



DRESDE 1945

Bizigai

Munduak armak ekoizten ditu, Euskal Herriak ere bai,
hor ez dago ez zoru etiko, ez damu eske, ez epai,
merkatuaren logikak dauka ingurua odolez blai,
beharrezkoak dira Gernika, Gaza, Mariupol ta Tigray,
hildako asko izan daitezen gutxi batzuen bizigai.

Airea: lurrarenpean sar naiteke.

Sustento.

El mundo produce armas, Euskal Herria también, ahí no hay suelo ético, ni remordimientos, ni sentencias.
La lógica del mercado tiene el entorno anegado de sangre, Gernika, Gaza, Mariupol, Tigray...
La muerte de muchos convertida en sustento de unos pocos.

Melodía: lurrarenpean sar naiteke.

Amets Arzallus Antia

Bertsolaria (Txapelketa Nagusiaren irabazlea, 2013an), idazlea eta kazetaria.

Bertsolari (vencedor del Campeonato Nacional en 2013) escritor y periodista.

Hogeita hamar tona bonba Gernikaren gainean. Azufrea Iraken.

Ume hilak Yemen eta Palestinan.

Bonba atomikoak Hiroshima eta Nagashakin.

Gudu zelaiak Sirian. Erresistentzia Kurdistanen.

Su-eten hautsia Mendebaldeko Saharan.

Baina munduak ez du alboetara begiratzen, diru gehiago egin nahi du,
eta horretarako armak saltzen jarraitzen du.


Treinta toneladas de bombas sobre Gernika. Azufre en Irak. Niños y niñas muertas en Yemen y Palestina. Bombas atómicas en Hiroshima y Nagashaki. Campos de batalla en Siria. Resistencia en Kurdistán. Alto el fuego roto en el Sáhara occidental. Y el mundo sigue sin mirar a las cunetas. Sigue enriqueciéndose. Sigue vendiendo armas.


Onintza Enbeita Maguregi

Bertsolaria, kazetaria, idazlea, politikari ohia, iritzi-emailea eta ETBko kolaboratzailea.

Betsolari, periodista, escritora, ex política, tertuliana y colaboradora de ETB.

Bonbila / Bombilla





Argazkia, zeramika, akrikikoa oihala oholaren gainean
150 x 250

Gernika Gernikara

Gernikaren aurrean jarri,
eta berehala ohartzen zara Picassok margotutako
oihal handiko irudiak
ez daudela batere gustura Madrilen,
eta ez dutela ezkututzen herrimina, Gernikamina.
Dauden museoaren bisitariak euskaraz ari direla ohartzen direnean,
orduan bakarrik, “eraman gaitzazue azkar etxera”
xuxurlatzen diete irudiek koadrora hurbildu diren euskaldunei,
euskaldunok bakarrik entzun eta uler dezakegun kodea erabilita.
Ezin jakin zer pentsatuko lukeen Picassok; badakigu, ordea,
zer nahi duten irudiek.

El Gernika, a Gernika

Sentado ante el Gernika, percibes enseguida que las imágenes pintadas en el gran lienzo de Picasso, no se encuentran nada a gusto en Madrid, que añoran su tierra, su Gernika.

Cuando los visitantes se percatan de que las imágenes hablan en euskera, solo entonces, susurran a los vascohablantes “eraman gaitzazue azkar etxera” (llevadnos rápido a casa), en un código que solo escuchamos y entendemos los vascohablantes.

No sabemos lo que pensaría Picasso; sí sabemos, sin embargo, lo que quieren sus imágenes.

Martxelo Otamendi Eiguren

Kazetaria eta Euskaldunon Egunkaria eta Berria egunkarietako zuzendari ohia.

Periodista y ex director de los diarios Euskaldunon Egunkaria y Berria.

Usoa / La paloma



Burdin-haria, zeramika, akrilikoa oihalaren gainean
200 x 150

Gernikan

Javier Gardoqui

Josefina Solozabal

Aurelio Legarreta

Catalina Arrieta

Gernikan

كوارح سليم نسيم

مالكي محمد

حبيب موسى

محروق جسد هناك

غزة في

Regina Aldama

Ume identifika ezina

Aurelia Candes Lopez

Clara Zaldunbide

قطعتين في الجسد

حسين ياسين نادية

الغفور عبد جبريل رميم

عارف أمين

Gernikan

غزة في

Gazan

Maria Santa

Bilbao Uriona

Behi zatia

Candida Amias

محروق جسد

الله عبد سراج

حسونة محمد سارا

Agapita Iturralde Zuloaga eta

Maria Iturralde Zuloaga

Gernikan غزال ابو رمضان الله عبد

موسى سلى و عاطف مريم

غزة في

Daniel Ibarzabal

Catalina Arrien Jaio علي محمد نور

حماد مهدي دنيا

Juana Beotegi Bilbao

Jacinta Gandiaga الله فرج محمد

خياط وألين محمد سلين

Gernikan


غزة في

Eñaut Elorrieta Larruzea

Kantugilea eta kantaria.

Compositor musical y cantante.

Gernikan Gazan



Akrilikoa, oihala burdin-hariaren gainean
90 x 90 x 10

**“Tierras ofendidas”,
de Pablo Neruda (1904-1973).
Fragmento**

Málaga arada por la muerte
y perseguida entre los precipicios
hasta que las enloquecidas madres
azotaban la piedra con sus recién nacidos.

Furor, vuelo de luto
y muerte y cólera,
hasta que ya las lágrimas y el duelo reunidos,
hasta que las palabras y el desmayo y la ira
no son sino un montón de huesos en un camino
y una piedra enterrada por el polvo.

Emakume herrena / La mujer coja



Argazkia, zeramika, akriliko egurraren gainean
125 x 55

AMAMAREN GAUZEN ARTEAN

Hasi ginenean amonaren gauzak erretiratzek, arropak, zapatak,
armairuak husten aurkitu genuen antzinako egunkari bat.

Hain antzinakoa ezen hogeita hamar hamarkadakoa baitzen.
Lehen orrian, Gernikako argazkiak.

Zuri-beltzean, gerraren triskantza.
Amamak gorde egin zuen egunkaria ia hirurogei urtez.
Ez ahazteko.

Gernikan zer gertatu zen, frogak izateko gezurra baletor ere.
Arropak eta zapatak eman egin genituen.

Egunkari zaharra, ez.

Entre las cosas viejas de la abuela

Cuando empezamos a retirar las cosas viejas de la abuela, ropas, zapatos,
vaciando el armario encontramos un periódico viejo.

Eran tan viejo que pertenecía la década de los treinta.
En la primera página, fotos de Gernika.

En blanco y negro, el desastre de la guerra.
El periódico que guardó la abuela durante casi sesenta años.
Para no olvidar.

Por si viniese la mentira, para tener pruebas de lo que ocurrió en Gernika.
Dimos las ropas y los zapatos.

El viejo periódico, no.

Kirmen Uribe Urbiet

Idazlea, NYU New York Universityko irakasle laguntzailea eta hainbat literatur sariren irabazlea.

Escritor, profesor ayudante en la UNY Universidad de New York y ganador de numerosos certámenes literarios.

Zezena / El toro



Zeramika, akriliko oihalaren gainean
90 x 110

Maleta



Argazkia zeramikaren gainean
20 x 40 x 12





Euskaldunontzat Gernika sinbolismoz betetako herria da. Bertan Francoren aliatuek 1937ko apirilaren 26an burutu zuten sarraskia mundu osoan da ezagun. Izuaren lekuko da. Picassoren obrak betikotu egin du zirrara hura gure oroimen kolektiboan.

Tamalez, Gernika ez da bakarra izan. Biztanleria zibilak hainbat aldiz jasan ditu tipo horretako bonbardaketak eta askoz larriagoak ere. Jarraian datorren txostena horren adierazle gordina da.

Hauek izuaren erraiak dira.

Gorroto ditut gizon, emakume eta haur errugabeak hilez beren eginbeharra betetzen ari zirela pentsatzen zuten soldaduak. Gorroto ditut aginduak ematen zituzten jeneralak. Gorroto ditut gertakariak ukatu edo justifikatu nahian zebiltzan aho txikiko propagandistak. Baina, batez ere, gorroto diot gerrari, hau guztia eragin duen instituzioari.

Noel Monks, Daily Express-eko korrespontsala Gernikan. 1937.

Odio a los soldados que pensaban que cumplían con su deber matando a hombres, mujeres y niños inocentes. Odio a los generales que daban las órdenes. Odio a los propagandistas de boca pequeña que intentaban negar o explicar los hechos. Pero sobre todo odio a la guerra, la institución que es la causante de todo esto.

Noel Monks, corresponsal del Daily Express en Gernika. 1937.

Para los vascos Gernika es un pueblo repleto de simbolismo. La masacre perpetrada por los aliados de Franco el 26 de abril de 1937 es conocida en todo el mundo. Es testigo del horror. La obra de Picasso contribuye a que la huella de la infamia permanezca viva en nuestra memoria.

Por desgracia, Gernika no ha sido la única villa masacrada por las bombas. La población civil ha sufrido demasiadas veces bombardeos de este tipo, e incluso mucho más graves. El informe que se presenta a continuación es un ejemplo de tales atrocidades.

Estas son las entrañas del horror.



xanti arrieta

Gernikak. Begiradak.

"Miradas"

Ordutegia:

asteartetik ostiralera

18:00 - 20:30

larunbatetan

12:00 - 14:00

18:00 - 20:30

igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00



AROTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala

